

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHU "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" 2023ko DEIALDIARI LOTUTAKO DOKTOREAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO DEIALDIA

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin behineko zerrenda

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoretzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi ditu, hautagai bakoitzak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela egiaztatzeko, honako alderdi hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 4. eta 7. oinarrietan jasotako baldintzak betetzea.
- b) Deialdiaren I. eranskineko proiektu bakoitzean jasotako baldintzak betetzea.
- c) Proiektu bakoitzean baloratu beharreko merezimenduak epaimahaira bidaliko dira.

Egiaztapen horren ondorioz,

ERABAKI DA onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko, 10 egun balioduneko epea izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita (**2024ko abenduaren 5era arte**). **Epe hori igaro ondoren, zuzendu gabeko eskaerak atzera egindakotzat joko dira.**

Behin-behinean onartutako hautagaiek eta baztertutakoek, eskatutakoa zuzentzen badute, doktorego-programan matrikulatuta egon behar dute, edo, bestela, programa horretan aurrez inskribatuta. Betekizun hori betetze aldera, Doktorego Eskolak ez ohiko epea irekiko du aurre inskripzioak egiteko. Doktoregoko Eskolan izena ematen dutenen hautagaiek "FPI 2024" deialdira aurkeztu direla adierazi beharko dute.

Dokumentazioa aurkeztea:

Deialdiaren 7.1. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberak erabiliz aurkeztu beharko dira agiriak.

Aipatutako aurkezpen-bide guztiek balio bera dute, eta beraz, horietako bat bakarrik erabiltzeko eskatzen zaie interesdunei.

Leioan, 2024ko azaroaren 21ean.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza